**EBAZPENA, 2023KO APIRILAREN 27KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN BAITA ZERBITZU-EGINKIZUNETAN EDO BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENEAN BETETZEKO, HALA BADAGOKIO, ZONAKO BERRITZEGUNEETAKO HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIEN AHOLKULARITZETAN ZERBITZUAK EMATEKO ZENBAIT LANPOSTU 2023/2024 IKASTURTEAN**

Deialdi honen xedea da Zonako Berritzeguneetan hezkuntza-premia berezietako hainbat aholkularitza-postuak betetzea, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak proposatuta.

Zerbitzu-eginkizuna lanpostuak hornitzeko ezohiko modu bat da. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 106. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 12. artikuluan dago araututa. Figura hori funtzionarioei aplikatuko zaie.

Langile lan-kontratudunei dagokienez, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 83. artikuluan ezartzen du lanpostuak betetzea eta langile lan-kontratudunen mugikortasuna aplikagarri diren hitzarmen kolektiboetan ezarritakoaren arabera egingo dela, eta, halakorik ezean, lanpostuak betetzeko eta karrerako funtzionarioak mugitzeko sistemaren arabera.

Horregatik, egokitzat jotzen da lan-kontratudun langileek lanpostuak behin-behineko esleipenaren bidez betetzeko deialdi honetan parte hartu ahal izatea, zerbitzu-eginkizunen sistemaren antzekoa baita.

**RESOLUCIÓN DE 27 DE ABRIL DE 2023, DE LA DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POR LA QUE SE CONVOCAN PARA SU COBERTURA, EN RÉGIMEN DE COMISIÓN DE SERVICIOS O ASIGNACIÓN PROVISIONAL, EN SU CASO, DIVERSOS PUESTOS PARA PRESTAR SERVICIOS EN LAS ASESORIAS DE NECESIDADES EDUCATIVAS ESPECIALES DE LOS BERRITZEGUNES ZONALES DURANTE EL CURSO 2023/2024**

La presente convocatoria tiene por objeto cubrir diversos puestos de asesoría de necesidades educativas especiales en Berritzegunes Zonales, a propuesta de la Dirección para la Diversidad e Inclusión Educativa.

La comisión de servicios se encuentra configurada como una forma extraordinaria de provisión de puestos de trabajo. Está regulada en el artículo 106 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco y en el artículo 12 del Decreto 185/2010, de 6 de julio, por el que se aprueba el acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario docente no universitario de la comunidad autónoma de Euskadi. Esta figura será de aplicación para el personal funcionario.

Respecto al personal laboral, el Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, establece en su artículo 83 que la provisión de puestos y movilidad del personal laboral se realizará de conformidad con lo que establezcan los convenios colectivos que sean de aplicación y, en su defecto, por el sistema de provisión de puestos y movilidad del personal funcionario de carrera.

Por ello, se estima adecuado que el personal laboral pueda participar en la presente convocatoria de provisión de puestos mediante la figura de la asignación provisional, la cual se asemeja al sistema de comisiones de servicio.

Horren arabera, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Deialdiaren xedea.
Deialdi honen xedea da I. eranskinean (Eskainitako lanpostuen zerrenda) zerrendatutako lanpostuak betetzea, 2023/2024 ikasturterako.
Funtzionarioen kasuan, lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bidez beteko dira.
Lan-kontratuko langileen kasuan, lanpostuak behin-behineko esleipenaren bidez beteko dira.

Bigarrena. – Betekizunak.

a) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako kidegoetako karrerako funtzionario izatea, eskatutako lanpostuaren arabera dagokiona, lanpostuen zerrenda arautzen duen dekretuaren arabera.
b) Aipatutako mailetan lan-kontratu finkoa duten irakasleek ere parte hartu ahal izango dute.
c) Era berean, bitarteko funtzionarioek ere parte hartu ahal izango dute, baina lanpostuak esleitzeko orduan lehentasuna izango dute karrerako funtzionarioek eta lan-kontratudun langile finkoek.
d) Zerbitzu aktiboan egotea Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publiko batean, eskabidea egiten den egunean, edo lanpostua gordetzea dakarren administrazio-egoeraren batean, eginkizun-gabetzearen kasuan izan ezik.
e) Halaber, zerbitzu berezietan edo borondatezko eszedentzian daudenek ere parte hartu ahal izango dute lehiaketan, deialdi honen bidez jarduneko zerbitzura itzuliz, baldin eta eszedentzian egoteko gutxieneko epea bete badute.

En su virtud, y teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 10 del Decreto 71/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación,

RESUELVO:

Primero. - Objeto de la convocatoria.
Es objeto de la presente convocatoria proveer para el curso escolar 2023/2024 los puestos relacionados en el Anexo I (Listado de puestos ofertados).
En el caso de personal funcionario, los puestos se proveerán mediante comisión de servicios.
En el caso de personal laboral, los puestos se proveerán por asignación provisional.

Segundo. – Requisitos.

a) Ser personal funcionario de carrera de los Cuerpos de Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco que corresponda en función del puesto solicitado, conforme al decreto por el que se regula la relación de puestos de trabajo.
b) También podrá participar el personal docente con contrato laboral fijo de los citados niveles.
c) Asimismo, podrá participar el personal funcionario interino, si bien tendrá prioridad en la adjudicación de puestos el personal funcionario de carrera y el personal contratado laboral de carácter fijo.
d) Encontrarse en situación de servicio activo en un centro público dependiente del Departamento de Educación en la fecha de realización de la solicitud o en alguna de las situaciones administrativas que conllevan reserva de puesto, excepto la suspensión de funciones.
e) Asimismo, podrán concurrir, reingresando al servicio activo a través de esta convocatoria, quienes se encuentren en situación de servicios especiales o situación de excedencia voluntaria, siempre que hubieran cumplido el plazo mínimo de permanencia en la misma.

f) 2022/2023 ikasturtean programa edo Berritzegune bereko lanpostu batean egindako zerbitzu-eginkizunen edo behin-behineko esleipenen balorazio negatiborik jaso ez izana.
g) Aurreko ikasturteetan esleitutako zerbitzu-eginkizunaren edo behin-behineko esleipenaren 2023/2024 ikasturterako luzapenari berariaz uko egin diotenek ezingo dute uko egindako lanpostua eskuratu.
h) 2023/2024 ikasturtean zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenean deialdi honetan deitutakoez bestelako lanpostu baterako izendatua ez izana, ebazpen hau argitaratzen den egunean.
i) Deialdi honen xede diren lanpostu guztiek honako betekizun hauek eskatzen dituzte:
   - TITULAZIOA: Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogia.
   - 2. HE betea.
   - Gutxienez **esperientzia ikasturte 1** hezkuntza-premia berezien arretan, pedagogia terapeutikoko irakasle gisa, entzumen eta hizkuntzako irakasle gisa, aholkulari edo orientatzaile gisa, edo hezkuntza-premia berezien aholkulari gisa.
j) Hautagaiek deialdi hau argitaratu aurretik egiaztatu beharko dituzte eskatzen duten lanpostuaren betekizunak.

f) No haber recibido valoración negativa de una comisión de servicios o asignación provisional desempeñada en el curso 2022/2023 en un puesto del mismo programa o Berritzegune.
g) Quienes hayan renunciado expresamente a la prórroga para el curso 2023/2024 de la comisión de servicios o asignación provisional adjudicada en cursos anteriores no podrán optar al puesto objeto de la renuncia.
h) No haber sido objeto de nombramiento en comisión de servicios o asignación provisional, para el curso 2023/2024, para otro puesto distinto a los convocados en la presente convocatoria, a la fecha de la publicación de esta resolución.
i) Todos los puestos objeto de esta convocatoria requieren:
   - TITULACIÓN: Psicología, Pedagogía o Psicopedagogía.
   - PL2 vencido.
   - Al menos **1 curso de experiencia** en atención de necesidades educativas especiales como maestro/a con especialidad en pedagogía terapéutica, maestro/a en audición y lenguaje, consultor/a u orientador/a o como asesor/a de necesidades educativas especiales.
j) Las personas candidatas deberán tener acreditados los requisitos del puesto que soliciten con anterioridad a la fecha de publicación de esta convocatoria.

Hirugarrena. – Baztertzeak eta uko egiteak.

1. Deialdi honetatik kanpo geratzen dira IRALE programarako liberatuta egongo direnak 2023/2024 ikasturterako.

2. Zerbitzu-eginkizunen edo behin-behineko esleipenen behin betiko esleipena jakinarazi ondoren, oro har, ezin izango zaio uko egin, deialdi honen xede den ikasturtea amaitu arte.

Tercero. – Exclusiones y renuncias.

1. Quedan excluidos de la presente convocatoria quienes vayan a estar liberados por el programa IRALE para el curso escolar 2023/2024.

2. Una vez notificada la adjudicación definitiva la comisión de servicios o asignación provisional, con carácter general, no se podrá renunciar a ella, hasta finalizar el curso objeto de la presente convocatoria.

Laugarrena.– Eskabideak formalizatzea, aurkezteko epea eta nahitaezko dokumentazioa.

1. Eskabidea formalizatzeko, hautagaiek HEZIGUNEA atariaren bidez aurkeztu beharko

Cuarto. – Formalización de solicitudes, plazo de presentación y documentación preceptiva.

1. Para la formalización solicitud, las personas candidatas deberán presentar su solicitud a

dute eskabidea (https://hezigunea.euskadi.eus/), Zerbitzu-eginkizunak: HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIEN AHOLKULARITZA (2023) bannerretik, beharrezkoa izango da eskatzailea aldez aurretik identifikatzea (NAN/AIZ + Pasahitza, edo XLNets-en erabiltzailea, halakorik badago).

Datuak sartzean akatsen bat izanez gero, gerta daiteke lanposturik ez lortzea; beraz, hautagaiek sartutako datuak egiaztatu behar dituzte formularioa bidali aurretik eta bidali dela ziurtatu.

2. Pertsona bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu beharko du, eta eskabide horretan lehentasuna emango zaie eskatutako postuei. Gehienez ere 5 lanpostu eskatu ahal izango dira guztira. I. Eranskinean, deialdian eskainitako lanpostu guztiak adierazten dira, eskabide-inprimakian ikusiko den bezala, lurraldearen eta Berritzegunearen arabera ordenatuta.

3. Eskabideak aurkezteko epea **2023ko apirilaren 27an hasi eta maiatzaren 5ean amaituko da**, biak barne.

4. Izangaiek parte hartu ahal izango dute 2023-2024 ikasturterako zerbitzu-eginkizunen bidez edo behin-behineko esleipenaren bidez lanpostuak betetzeko **prozedura bakar batean**, ebazpen honen datatik aurrera deitutakoen artean. Eskatzaile batek deialdi batean baino gehiagotan egiten badu eskaera, erregistratutako azken eskaera bakarrik hartuko da kontuan, HEZIGUNEA atarian jasotako erregistro-data eta -ordua kontuan hartuta.

5. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko nahitaezko dokumentazioa. Eskabideekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskatutako **betekizunen** egiaztagiri ofizialak. Agiri bidez egiaztatu beharko dira Administrazio honetan interesdunaren fitxa pertsonalean behar bezala egiaztatuta ez dauden betekizunak.

b) **Alegatutako merezimenduak** ofizialki egiaztatzeko agiriak. Administrazio honetan behar bezala egiaztatuta ez dauden merezimenduak alegatu ez ezik,

través del portal HEZIGUNEA (https://hezigunea.euskadi.eus/) desde el banner: "Comisiones de servicio: ASESORÍA DE NECESIDADES EDUCATIVAS ESPECIALES (2023)", será necesaria la identificación previa (DNI/NIE + Contraseña, o usuario de XLNets si ya se dispone) de la persona solicitante.

Cualquier error en la introducción de datos puede determinar que no se obtenga ninguna puesto, por lo que las personas candidatas deben verificar los datos introducidos antes de enviar el formulario y asegurarse de que se ha enviado.

2. Cada persona deberá presentar una única solicitud en la que ordenará por preferencia los puestos solicitadas. Se podrán solicitar hasta un máximo de 5 puestos de trabajo en total. En el Anexo I se indican todos los puestos ofertados en la convocatoria, tal y como se visualizarán en el formulario de solicitud ordenados por territorio y Berritzegune.

3. El plazo para presentar las solicitudes comenzará **el 27 de abril y finalizará el 5 de mayo de 2023**, ambos incluidos.

4. Las personas aspirantes podrán participar en **solo un procedimiento** de provisión de puestos por comisión de servicios o asignación provisional para el curso 2023-2024 de entre los convocados de la fecha de la presente en adelante. En caso de que una misma persona solicitante formalice solicitud en más de una convocatoria, se tendrá en cuenta únicamente la última solicitud registrada, en base a la fecha y hora de registro que consten en el portal HEZIGUNEA.

5. Documentación preceptiva a presentar junto con la solicitud. Las solicitudes deberán ir acompañadas de:

a) Documentación acreditativa oficial de los **requisitos** exigidos. Únicamente deberán acreditarse documentalmente aquellos requisitos que no estén debidamente acreditados en esta Administración, en la ficha personal del interesado o interesada.

b) Documentación acreditativa oficial de los **méritos alegados**. Aquellos méritos que no estén debidamente acreditados en esta Administración deberán ser no solo alegados, sino también acreditados

dagozkien dokumentuen bidez ere egiaztatu beharko dira.

Ez dira baloratuko eskabidean alegatu ez diren merezimenduak, ez eta, eskabidean agertu arren, behar bezala egiaztatzen ez direnak ere, baldin eta Administrazio honetako izangaiaren fitxa pertsonalean agertzen ez bada.

Bosgarrena. – Balorazio-prozesuaren faseak.

1. Pertsonak eskatutako baldintzetara egokitzen direla egiaztatzea. Egiaztapen hori Hezkuntza Saileko lurralde-ordezkaritzetako Langileak Kudeatzeko zerbitzuek egingo dute, deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera.

2. Deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten eta behar den epean eta moduan aurkeztu diren eskabideak Balorazio Batzordeak baloratuko ditu.

3. Merezimenduen balorazioa.

- Hezkuntza Saileko lurralde-ordezkaritzetako Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa eta Langileen Kudeaketa zerbitzuek baloratuko dituzte baldintza guztiak betetzen dituzten izangaiek alegatutako merezimenduak.
- Merezimenduen balorazioa deialdi honen II. Eranskinean (Baremazio-irizpideak) argitaratutako baremoaren arabera egingo da.

4. Jarraian, balorazioak Balorazio Batzordeari helaraziko zaizkio, onar ditzan.

5. Balorazio Batzordeak esleipen-proposamen bat aurkeztuko dio Langileak Kudeatzeko zuzendariari. Azterketa egiteko, honako hauek hartuko dira kontuan: eskainitako lanpostuak, lan-harremana, balorazioaren emaitza, hautagaiek beren eskabideetan adierazi duten lehentasun-ordena eta hezkuntza-behar berezietan duten esperientzia.

6. Eskainitako lanpostuak karrerako funtzionarioen edo lan-kontratudun langile finkoen artean esleituko dira, baremazio-ordenaren arabera, hezkuntza-premia

mediante los documentos correspondientes.

No serán valorados los méritos no alegados en la solicitud, ni aquellos que, figurando en la misma, no sean debidamente acreditados en caso de no constar en la ficha personal del candidato o candidata en esta Administración.

Quinto. - Fases del proceso de valoración.

1. Comprobación de la adecuación de las personas a los requisitos exigidos. Esta comprobación será realizada por los servicios de Gestión de Personal de las Delegaciones Territoriales del Departamento de Educación conforme a los criterios establecidos en esta convocatoria.

2. Las solicitudes que cumplan con los requisitos exigidos en esta convocatoria y que hayan sido presentadas en tiempo y forma serán valoradas por la Comisión de Valoración.

3. Valoración de méritos.

- Los servicios de Diversidad e Inclusión Educativa y de Gestión de Personal de las Delegaciones Territoriales del Departamento de Educación valorarán los méritos alegados por las personas candidatas que cumplan todos los requisitos
- La valoración de méritos se hará de acuerdo con el baremo publicado en el Anexo II (Criterios de baremación) de esta convocatoria.

4. Seguidamente, las valoraciones serán facilitadas a la Comisión de Valoración para su aprobación.

5. La Comisión de Valoración elevará a la Directora de Gestión de Personal una propuesta de adjudicación. Para la elaboración de la misma, tendrá en cuenta los puestos ofertados, la relación de empleo, el resultado de la valoración, el orden de preferencia que las personas candidatas hayan hecho constar en sus solicitudes y su experiencia en necesidades educaticas especiales.

6. Se adjudicarán los puestos ofertados entre las personas candidatas funcionarios y funcionarias de carrera o personal laboral fijo tengan **al menos tres cursos de experiencia** en

bereziei erantzuteko **gutxienez hiru ikasturteko esperientzia** badute.

7. Esleitu gabeko lanpostuak geratzen badira, hezkuntza-premia bereziei erantzuteko ikasturte batetik hirura bitarteko esperientzia duten karrerako funtzionarioen edo lan-kontratudun langile finkoen artean esleituko dira, baremazio-ordenaren arabera.

8. Azkenik, oraindik esleitu gabeko lanpostuak geratzen badira, 6. eta 7. idatz-zatietan azaldutako irizpideen arabera esleituko dira bitarteko funtzionarioen artean.

Seigarrena. – Balorazio-baremoa.

1. Eskatzaileen merezimenduak deialdi honen II. Eranskinean (Baremazio-irizpideak) argitaratutako baremoaren arabera puntuatuko dira. Ebazpen hau argitaratzen den egunera arte egindako merezimenduak baino ez dira baloratuko.

2. Guztira, 10 puntu lor daitezke gehienez.

3. Puntuazioen guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, baremoaren atal bakoitzeko puntuazio handiena kontuan hartuta ebatziko dira, baremoan ezarritako ordenaren arabera.

Zazpigarrena. – Balorazio Batzordea.

Balorazio Batzorde bat sortuko da, honako kide hauek osatua:

Batzordeburua:

- Pilar Antón Crespo, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzako hezkuntza-laguntzako premia espezifikoen zerbitzuko arduraduna.

Batzordekideak:

- Miren Lore Aretxaga Bedialauneta, Ikaskuntzako eta Hezkuntza Berrikuntzako Bizkaiko lurralde-arduraduna.
- Isabel Rejado Vigalondo, Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzako Arabako lurralde-arduraduna.
- Juan Jose Agirrezabala Mantxola, Ikaskuntzako eta Hezkuntza Berrikuntzako Gipuzkoako lurralde-arduraduna.

atención de necesidades educativas especiales, por orden de baremación.

7. Si quedaran puestos sin adjudicar, se adjudicarán entre las personas aspirantes funcionarias de carrera o personal laboral fijo que tengan entre uno y tres cursos de experiencia en atención de necesidades educativas especiales, por orden de baremación.

8. Finalmente, si quedaran todavía puestos sin adjudicar, se asignarán conforme a los criterios expuestos en los apartados 6. y 7., entre los funcionarios interinos.

Sexto. - Baremo de valoración.

1. Los méritos de las personas solicitantes, se puntuarán de acuerdo con el baremo publicado en el Anexo II (Criterios de baremación) de esta convocatoria. Únicamente serán valorables los méritos perfeccionados hasta la fecha de la publicación de la presente resolución.

2. La puntuación global máxima que se pueda obtener será de 10 puntos.

3. En caso de que se produjesen empates en el total de las puntuaciones, estos se resolverán atendiendo sucesivamente a la mayor puntuación en cada uno de los apartados del baremo, conforme al orden establecido en el mismo.

Séptimo. – Comisión de Valoración.

Se creará una Comisión de Valoración integrada por los siguientes miembros:

Presidencia:

- Pilar Antón Crespo, Responsable del servicio de necesidades específicas de apoyo educativo de la Dirección para la Diversidad e Inclusión Educativa.

Vocalías:

- Miren Lore Aretxaga Bedialauneta, Responsable territorial de Bizkaia de Aprendizaje e Innovación Educativa.
- Isabel Rejado Vigalondo, Responsable territorial de Álava de Aprendizaje e Innovación Educativa.
- Juan Jose Agirrezabala Mantxola, Responsable territorial de Gipuzkoa de Aprendizaje e Innovación Educativa.

- Idoia Martinez De Antoñana Arrue, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzako teknikaria.
- Ordezkoa: Jose Manuel Palacios Navarro, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzako aniztasunari erantzuteko zerbitzuburua.

Idazkaritza:

- Marina Quel Antón, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikaria; hitza izango du, baina botorik ez. Ordezkoa: Vanessa Cachafeiro Sáez de Cortazar, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikaria.

Era berean, sektorean ordezkaritza nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bana egon ahal izango da Balorazio Batzordean; ordezkari horrek hitza izango du, baina botorik ez.

Batzorde Balorazio Batzorde Orokorreko kideak errekusatu daitezke, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**Zortzigarrena.- Behin-behineko ebazpena eta erreklamazioak.**

1. Balorazio-prozesua egin ondoren, Balorazio Batzordeko buruak bere ebazpen-proposamena bidaliko dio Langileak Kudeatzeko zuzendariari, azken horrek deialdiaren behin-behineko ebazpena eman dezan, onartutako eta baztertutako pertsonekin, dagozkien hautagaitzei emandako guztizko puntuazio xehatuarekin eta ordezkapenetarako behin-behineko zerrendarekin, halakorik balego.
2. Behin-behineko ebazpena eta zerrendak helbide honetan argitaratuko dira, interesdunek horren berri izan dezaten: https://hezigunea.euskadi.eus/ eta Hezkuntza Sailaren web-orrian.

3. Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hiru egun balioduneko epea irekiko da Langileak Kudeatzeko zuzendariari erreklamazioak egiteko.

**Bederatzigarrena.- Behin betiko ebazpena.**

1. Egon daitezkeen erreklamazioak aztertu eta ebatzi ondoren, edo halakorik ez badago,

- Idoia Martinez De Antoñana Arrue, técnica de la Dirección para la Diversidad e Inclusión Educativa.
- Sustituto: Jose Manuel Palacios Navarro, Jefe de servicio de atención a la diversidad de la Dirección para la Diversidad e Inclusión Educativa.

Secretaría:

- Marina Quel Antón, técnica de la Dirección de Gestión de Personal, con voz, pero sin voto. Sustituta: Vanessa Cachafeiro Sáez de Cortazar, técnica de la Dirección de Gestión de Personal.

Asimismo, la Comisión de Valoración podrá contar con la presencia de un delegado o una delegada de cada central sindical con representación suficiente en el sector, con voz, pero sin voto.

Los miembros de la Comisión General de Valoración relacionados en el presente apartado, podrán ser recusados, de conformidad con lo establecido en el artículo 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

**Octavo.– Resolución provisional y reclamaciones.**

1. Una vez realizado el proceso de valoración, la presidenta de la Comisión de Valoración remitirá a la directora de Gestión de Personal su propuesta de resolución, al efecto de que esta última adopte la resolución provisional de la convocatoria con las personas admitidas, excluidas, la puntuación total y desglosada otorgada a las correspondientes candidaturas y la lista provisional de condidatos/as a sustituciones, si la hubiera.
2. La resolución provisional y los listados se publicarán en la siguiente dirección para su conocimiento por los interesados e interesadas: https://hezigunea.euskadi.eus/ y en la página web del Departamento de Educación.
3. Se abrirá un plazo de tres días hábiles, contados a partir del día siguiente a su publicación, para efectuar reclamaciones ante la directora de Gestión de Personal.

**Noveno.- Resolución definitiva.**

1. Una vez analizadas y resueltas las posibles reclamaciones o si no las hubiera, la directora

Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdiaren behin betiko ebazpena argitaratuko du, hautagai bakoitzari emandako azken balorazioak adierazita, bai eta hautatutako pertsonen, baztertutakoen eta hutsik gera daitezkeen lanpostuen, eta ordezkapenetarako izangaien behin betiko zerrenda ere, halakorik balego.

de Gestión de Personal hará pública la resolución definitiva de la convocatoria con expresión de las valoraciones finales otorgadas a cada una de las personas candidatas, así como la relación definitiva de las personas seleccionadas, de las excluidas y de los puestos que pudieran resultar desiertos, así como de la lista de personas candidatas a sustituciones si la hubiera.

2. Behin betiko ebazpena eta zerrendak helbide honetan argitaratuko dira, interesdunek horren berri izan dezaten: https://hezigunea.euskadi.eus/ eta Hezkuntza Sailaren web-orrian.

2. La resolución definitiva y los listados se publicarán en la siguiente dirección para su conocimiento por los interesados e interesadas: https://hezigunea.euskadi.eus/ y en la página web del Departamento de Educación.

3. Behin betiko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3. Contra la resolución definitiva podrá interponerse recurso de alzada ante el viceconsejero de Administración y Servicios en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación.

Hamargarrena. – Izendapena eta luzapenak.

1. Hautatutako pertsonak dagokien lanpostuan izendatuko dira 2023/2024 ikasturtea amaitu arte, salbu eta ikasturtean zehar titularra lanera itzultzen bada.

2. Zerbitzu-eginkizunen emakida ondoriorik gabe geratuko da, baldin eta benetan gauzatzeko lanpostu hutsik ez badago, lekualdatze-lehiaketan arauz betetzearen ondorioz edo lanpostuari dagokion hornitzeko moduaren ondorioz. Ondoriorik gabe geratuko da, halaber, lanpostuaren titularra itzultzen bada edo arauzko beste edozein estaldura egiten bada.

3. Zerbitzu-eginkizunak edo behin-behineko esleipenak esleitzen zaizkien pertsonek galdu egingo dituzte horiek, baldin eta praktiketako funtzionario izendatzen badituzte eta ezin badituzte garatu deialdi honen bidez esleitutako lanpostuan.

4. Hautatutako pertsona zerbitzu aktiboaz bestelako administrazio-egoera batean badago, zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena esleitzeko, itzultzeko eskaera egin beharko du, berehala, eta aldi berean zerbitzu-eginkizuna edo behin-

Décimo. - Nombramiento y prórrogas.

1. Las personas seleccionadas serán nombradas en el puesto correspondiente hasta la finalización del curso académico 2023/2024, salvo que durante el curso se produzca la reincorporación de la persona titular.

2. La concesión de las comisiones de servicios quedará sin efecto en el caso de que no hubiese puesto vacante para su materialización efectiva, a consecuencia de su cobertura reglamentaria en el concurso de traslados o la forma de provisión que corresponda al puesto. También quedará sin efecto en el supuesto de reingreso de la persona titular del puesto o cualquier cobertura reglamentaria.

3. Aquellas personas a las que les sean adjudicadas las comisiones de servicios o asignaciones provisionales decaerán de las mismas en el caso de que sean nombradas funcionarias en prácticas y no puedan desarrollar las mismas en el puesto adjudicado en virtud de esta convocatoria.

4. En el caso de que la persona seleccionada estuviera en una situación administrativa distinta a la del servicio activo, la adjudicación de la comisión de servicios o de la asignación provisional estará condicionada a su solicitud de reingreso, que deberá producirse de

behineko esleipena esleituko zaio. Hala egin ezean, eskubidea galduko du, eta puntuazio handiena duen hurrengo pertsona hautatuko da.

manera inmediata, adjudicándosele simultáneamente la comisión de servicios o la asignación provisional. De no hacerlo así, decaerá en su derecho y se seleccionará a la siguiente persona con mayor puntuación.

5. Karrerako funtzionarioei zerbitzu-eginkizun bat emango zaie lanpostu horiek betetzeko 2023/2024 ikasturtea amaitu arte.

5. Al personal funcionario de carrera se le concederá una comisión de servicios para el desempeño de los referidos puestos hasta la finalización del curso académico 2023/2024.

6. Lan-kontratudun langile finkoen kasuan, lanpostu horiek behin-behinean esleitzeko ebazpenaren bidez beteko dira, 2023/2024 ikasturtea amaitu arte.

6. En el caso del personal laboral fijo, la cobertura de los referidos puestos se efectuará mediante resolución de asignación provisional hasta la finalización del curso escolar 2023/2024.

7. Era berean, hautatuak izan daitezkeen bitarteko langileak lanpostu horretarako izendatuko dira 2023/2024 ikasturtea amaitu arte.

7. Asimismo, el personal interino que pudiera resultar seleccionado será nombrado en ese puesto hasta la finalización del curso escolar 2023/2024.

